

Elena Silvestre Sorianok bere Tesia irakurri du

2015/12/14

Abenduaren 10an, goizeko 11:00etan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Elena Silvestre Soriano Doktoregaiak bere doktore-tesia aurkeztu zuen Mondragon Unibertsitateko Iturripeko egoitzan. Tesiaren izenburua *Sheet metal roll levelling optimization by means of advanced numerical models and development of new concepts for last generation materials* eta tesi zuzendariak: Lander Galdos eta Eneko Saenz de Argandoña. Gainera Bikain Cum Laude kalifikazioa lortu zuen. Honetaz gain, Europako Doktore aipamena jaso du.

Epaimahaia horrela osatu zen:

- **Mahaiburua:** Xavier Michel Marie Lemoine (ArcelorMittal Maizières R&D Centre Automotive Products) Dk. Jn.
- **Mahaikidea:** Ariel Eijo (Quantech ATZ,S.A.) Dk. Jn.
- **Mahaikidea:** Iñaki Hurtado Hurtado (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.
- **Mahaikidea:** Edurne Iriondo Plaza (UPV-EHU) Dk. And.
- **Idazkaria:** Joseba Mendiguren Olaeta (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.

Tesi honen funtsa da simulaziorako ereduak garatzea, arrabol bidezko lauketa prozesua ulertu eta optimizatzeko eta materialen inguruko joera berrietara egokitu ahal izateko. Horretarako, FEM eredu bat, eredu erdi-analitiko bat eta eredu analitiko bat garatu eta esperimentalki balioztatu da. Lauketari buruzko kontzeptu berriak ere sortu dira, makina horien ahalmena hobetu ahal izateko eta, ondorioz, merkatuan azaleratzen ari diren material berriak prozesatu ahal izateko.

